

Urtero 20 milioi itsas zaldi arrantzzen dira Asian. Horietako gehienak, 16 milioi inguru, medikuntza tradizionalerako sendabide gisa erabiltzen dira eta gainerakoak, oroigarri-modura salduko dira Txina, Taiwan edota Hong Kong-eko merkatuetan. Azken 10 urteotan, itsas



Urtero 20 milioi itsas zaldi arrantzzen dira Asian eta arrantza masiboak aldiari aldiko espezie-kopurua ezezki, espezieia bera ere jarri du mehatxupean.

zaldien inguruko merkata etengabe hazi da eta eskaria gero eta dibertsifikatuago agertzen da mundu osoan. Ez zarete harrituko beraz, itsas zaldia desagertzeko bidean dagoen animalia dela esaten badi-zuegu. Izan ere, horixe baita TRAFFIC erakundearen azken txostena

pean. Kumea kanporatzeaz dauden emeak bereziki preziatuak dira arrantzaletzat, ur azpian beren burua ezkutatzeko oso trebeak diren animalia horiek errazago ikusten baitira egoera horretan. Ugaldu baino lehen harrapatzeak hortaz, espeziearen iraupena baldintzatzen du. Oxford-eko ikerlari-talde baten iritzi, itsas zaldien arrantza erabat debekatzeko legez kanpoko arrantza-sareak sortzea ahalbideratuko luke eta beraz, ez da hori itenbide egokitzat hartzen. Aldiz, Asiako kostaldean irerantz selektiborako guneak sortzea proposatu dute. Jadanik era horretako bi gune sortu dira Filipinetan.

Pinatubo eta koralak

Pinatubo sumendiaren eztaudak uste baino eragin handiagoa izan zuen eta izango du hurrengo urteotan ere. 1991n gertatu zen eztanda eta berriki jakin ahal izan dugunez, Itsas Gorriko kostalderaino iritsi dira bere ondorioak. Israel-eko ikerlari-talde batek baieztatu duenez, eztaudaren ondoriozko berotasuna labarekin batera hedatu zen itsas azalean



Eztaudaren ondoriozko berotasuna labarekin batera hedatu zen itsas azalean zehar eta eztanda gertatu lekuitik ehundaka kilometrora zeuden koralek ere pairatu dute sumendi-eztaudaren eragina.

zehar eta eztanda gertatu zen lekuitik ehundaka kilometrora zeuden koralek ere pairatu dute sumendi-eztaudaren eragina. Datu horien arabera, eztaudak sortutako beroaldia azken bi urteotan nozitu da nagusiki. Akabako Golkorekin inguruko koraleen % 20 erabat suntsitu zituen sumendiak sortutako beroak eta gainerakoak oso egoera larrian utzi zituen. Izan ere, uretako elikagaiak neurririk gabe ugari dira beroaren ondorioz eta koralek jasaterik ez duten gazitasun-maila nagusitu da.

Ongi etorria Pirinioetara!

Pirinioetatik albiste pozgarria heldu zaigu berriki. Orain arte zurrumurru hutsa zena baieztatuta egin du Pyrénées Magazine izeneko aldizkariak bere azken zenbakian: Aspe

eta Ossau bailaretan hartz arrearen (Ursus arctos) kume bat jaio zen pasa den udaberrian. Aldizkari horretako azken zenbakian Jean-Jacques Camarra-ren argazkiak ikus daitezke esandakoaren froga gisa. Izan ere, irudi horietatik ondorioztatuta ahal izan da pasa den udaberrian jaioa dela hartz-kumea. Bertako biztanleen eta biologoen artean berehala zabaldu da albistea eta hasierako pozak kezkarri zabaldu dio bidea. Izan ere, hartz-kume berriak ezagutuko duen inguruean zenbait proiektu berri martxan da, horien artean bere habitata erabat aldaraz dezakeen Sonporteko tunela. Proiektu horiek guztiak bizi-baldintza berriak ezarriko dizkiote jaioberriari eta horietara egokitzeko gauza izango ote den ikusteke dago oraindik. Horrez landa, legez kanpoko ehizatarien aurrean inork babesterik izango ote duen argitu beharko da beranduegi izan baino lehen.



Gure osasunaren izenean

Etorkizuneko droga edota sendabideen ikerketak uste baino eragin kaltegarriagoak ekar ditzake epe ertainera. Australian jadanik arrisku horretaz jabetu dira eta ozeanoetako organismo asko desagertzeko bidean daudela ohartarazi dute. Queensland Unibertsitateko biologoek salatu dutenez, farmakoak ekoizten dituen zenbait enpresak bultzaturik, itsasoko organismoak neurririk gabe ari dira ustiatzen, iharduera horren ondorioak ezagutu gabe. Ur azpian dauden organismo guztiak sendabideak ekoizteko bali dezaketela ustea era-

Ozeanoetako organismoekiko ditugun axolagabeko jokaerak baztertuz, bideak ekoizteko modu egokiagoak bultzatzearen alde azaldu da hainbat biologo.



bat ustela dela gauza jakina da, baina interes ekonomikoak tartean direnean hori ahaztu egiten dela salatu dute biologoek. Axolagabeko jokaerak baztertuz, sendabideak ekoizteko modu egokiagoak bultzatzearen alde azaldu dira biologo horiek eta horretarako, zenbait bide jorratzea proposatu dute. Bide alternatibo horien artean esate baterako, laborategietako langileak inplikatzu akuakulturako ikerketaguneak sortzea jotzen da irtenbide egokitzat.

Izurritea kontrola ezina da jadanik

Australian aspaldikoa da untxien aurkako borroka, baina lazko azaroz geroztik, kontrolik gabe hedatzen ari den izurritearen beldur dira. *Rabbit calicivirus* izeneko birusak eragin du eragilea edo zehatzago esateko, birus hori inolako kontrol-neurririk gabe erabili dutenek. Lazko urrian hasitako ikerketa-bidearen erdian kokatu behar da izurritearen jatorria. Orduantxe ekin zioten Australiako hegoaldeko ikerlariak untxien gain-populazio arazorako irtenbideak bilatzeari. *Rabbit calicivirus* izeneko birusa erabiltzen hasi ziren laborategian, baina egun gutxiren buruan, birusak laborategiko

segurtasun-neurriak gainditu eta Australia osoan zehar zabaltzen hasi zen. Azken datuen arabera, intsekturen batek garraiatu zuen birusa eta inguru osora zabaldu zuen. Hedatu izanaren arrazoia edozein delarik ere, birusak sortutako izurritea geraraztea ez da zeregin erraza izango. Oraindino ikerlariak ez dute birusaren aurkako biderik aurkitu eta aske segitzen duen bitartean, ehundaka untxi hilko du. Hasierako asmoa bete egin dela pentsa dezake norbaitek eta, neurri batean horrela bada ere, izurriteak beste zenbait animalien gain izan dezakeen eraginaz kexu azaldu dira ikerlariak.

Romero eta Julieta

Ondoko argazkian kus dezakezun tximinoa indridioen familiako sifaka bat da. Xehetasunak xehetasun, Durham-go Unibertsitateko biolo Boek Romeo izenaz ezagutzen dute. Duela bi urte biologo-talde batek aurkitu zuen Madagaskarren. Bertatik Durham-era eraman zuten beste lau sifakakin batera, baina *Romero* da bidaiairen baldintza gogorak gainditu zituen bakarra. Geroztik beraz, bakarrik bizi da Unibertsitateko Primatologia Zentruan. Animalia eder honek



Animalia eder honek bere Julieta aurkitza ezinbestekoa du bere espeziearen iraupenerako eta zeregin horretan ari dira buru-belarri.

bere Julieta aurkitzea ezinbestekoa du bere espeziearen iraupenerako eta zeregin horretan ari dira buru-belarri. Madagaskarreko sifakak desagertze-bidean dauden animaliak dira. Bere kolore deigarriak dirala eta, ehizaki preziatua da turistentzat eta bitxikeri-gisa ehizatzen dute nagusiki. Nolanahi ere, jangarria da eta bere jatorrizko izenaren itzulpenak dioenez "bi egun behar dira tximino hau jateko". Horrek guztiak eta bere jatorrizko habitata sistematikoki suntsitu izanak bakardaderik bortitzenean utzi dute Romeo eta espeziea arrisku larrian dago.